

Lizeaga kaleak ia 2 metro zabaleko espaloia izango du datorren hilabetetik aurrera

■ Bideari ia metroa kendu badiote ere, aparkatzeko plaza kopuru bera geldituko da bidearen bi aldeetara ■ Orkolagako parkinean eta Arantzazu plazan ere aparkaleku kopuru bera geldituko da, asfaltoa bota eta lurreko arraiak pintatu ostean.



Lizeaga kaleko espaloia 1,90 metro izango ditu zabalean.

LIZEAGA kalean espaloia zabalzko obrak egiten ari dira joan deneko bi asteetan. Espaloia berriak 1,90 metroko zabalaera izango du, lehengoak baino 90 bat zentrimetro gehiago, eta abuztu ingururako bukatua egongo da, Udaletkin Kronikari jakin arazi diotenez. Aparkatzeko plaza kopurua orain arteko bera izango da Lizeaga kalean, eta kotxeak pasatzeko tokia ere 3 metro ingurukoa geldituko da, orain artekoaren tankeratsukoa.

Lizeaga kaleko espaloia oso estua zen puntu batuetan. Gehienean metro bateko zabalaera zeukan baina, bazituen 80 zentimetro zabaleko tokiak ere. Orain, 1,90 metroko zabalaera izango du goitik hasi eta beheraino. Aparkalekuak oraingo zentzu berean geldituko dira, bidearen bi aldeetara eta *linean*.

Obra *Construcciones Ceyma* enpresa ari da egiten eta presupuesto 43.730 eurokoa da (lehenagoko 7.276.000 pe-

zeta inguru).

Orkolagako parkina

Orkolagako parkina eta Arantzazu plazan ere obrak egin dituzte. Bietan asfaltoa bota dute eta kotxeak aparkatzeko lekua markatu dute. Orkolagako parkinean astelehenean bota zuten asfaltoa eta asteartean pintatu zuten lurra. Gutxi gorabeherako kalkuluen arabera, 50 bat kotxerentzat izango da lekua. Lehen ere plaza kopuru beretsua zuen parkinak, baina, orain txukunago markatu dituzte aparkalekuak. Parkinaren inguru guztian *baterian* aparkatu beharko da, eta erdian dauden bi farolen artean *linean* aparkatzeko plaza pare bat geldituko da.

Arantzazu plaza

Arantzazu plazan (Lizeagatik Portu auzorako bidean behera goazela, bi aldeetara gelditzen diren zabaluneak) asteartean hasi zitzuten obrak eta datorren asterako bukatuta izango

dute seguruenera. Hemen ere asfaltoa bota eta aparkalekuak markatuko dituzte. Plaza kopurua ez da gehiegiz aldatu da eta 83 bat kotxe kabitzeako modua izango da. Arantzazu plazak bi zati ditu eta aldaketa nagusiak Udaletxe aldera geratzen den zatian izango dira. Orain arte, plazaren erdialdean *paraleloan* aparkatzen zen eta orain, *doble linear* aparkatze-ko modua egin nahi dute.

Beste obra batzuk

Orkolagako parkina eta Arantzazu plazarekin batean, Larragain baserrirako bidea eta Iparragirre baserritik Lastaolarako bidea ere konpondu dituzte. Hori guztia *Guipasa S.A.* enpresak egin du eta presupuesto 151.165 eurokoa izan da (lehengo 25.152.000 pezeta ingurukoa).

Aurreko obra horiekin batera egiten ari diren lanen artean daude, baita ere, Izeneder eta Barkaiztegi baserrietarako bi-deak txukuntzea. □



Atzo primerako egeraldia egin zuen busti bat hartzeko, eta irrikiz eskatu zuten gazteek ura.

Ur festa izan zuten atzo Udalekutako umeek eta bera-bera eginda bukatu zuten goiza

UDALEKU irekiak urean paspa zitzuten atzo, Kaxkoan barrena. Ume koadrila "bota ura bota ura eh, eh..." eginaz jeitxi zen Andre kalean behera eta bizilagunek ez zuten duda haundirik izan eskatutakoa emateko: batzuk baldeekin, besteak kazoekin, mangerarekin... kontua gazte jendea blai egitea.

Udalekutako eguna seinatalua bihurtu da Ur festaren eta Kaxkoko jendeak infraestructura pronto edukitzen du gazteak etortzerako.

Udaleku irekiek deskan-tsua hartzen dute asteburuan, baina, datorren astea eta hurrengoa badituzte oraindik gozatzeko, abuztura arte, alegia. □

Telemar
Itxastele, S.L.

RENOVE PLANA
Movistar Active

Egundoko ESKAITZAK
Etxe tresnatan eta mugikorretan.

Telemar Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel.: 943 55 33 99 - 943 33 00 60

Arrandegia
Mari Fe

Nagusia 36
943 550 489 | Orkola 17
943 552 741

HERNANI

Ford
Antziola-Motor
Salmenta eta tailler zerbitzua

Ford Mondeo

3 aukera ezberdin, gusto ezberdinak:
- 4 ateko elegantzia
- 5 ateko deportiboa
- Wagon familiarra

Etorri, ikusi eta aukeratu.

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

■ IGERIKETA



Hernaniko igerilariak herriko igerilekuaren dominak aurrean dituztela.

Hernaniko igerilariak bikain aritu dira Gipuzkoako txapelketan eta 26 medaila lortu dituzte

■ Urrezko 4 medaila, zilarrezko 6 eta brontzezko 16 lortu dituzte.

IGERIKETAKO Gipuzkoako Txapelketa Nagusia jokatu berri da eta hernaniarrak sekula lortu duten medailarik gehiena ekarri dute. Guztira 26 medaila lortu dituzte: urrezko 4, zilarrezko 6 eta brontzezko 16. Taldeka 4 garren gelditu dira neskak, 7garren mutilak eta orokorrean 5garren gelditu da Hernaniko taldea.

Hernaniren izenean parte hartu duten igerilariak izan dira: Andrea Izagirre, Iara Jimenez, Olatz Altuna, Oihane

Sanz, Eider Estibariz, Ion Casas, Artur Casas, Peru Alfarro, Harri Iturrioz eta Mañel Aizpurua. Urrezko medailak Iara Jimenezek eta Oihane Sanzek lortu dituzte: Jimenezek 3 (50, 100 eta 200 metro libreetan) eta Sanzek bat (50 metro libreetan).

Gutxiengo denborak

Oihane Sanz eta Olatz Altuna Espaniako txapelketara sailkatzen zorian izan ziren, eskatzen den minimatik dezi-

ma bakarrera gelditu baitira biak, 50 metro libre estiloan. Iara Jimenez eta hirurak daramakiten denboraldi borobila medio, Gipuzkoako selekziora deituak izan dira, uztailaren 26 eta 27an Probintziarteko Euskadiko txapelketan parte hartzeko.

Bestalde, gaur eta bihar Euskadiko txapelketa nagusia jokatuko da Iruñan eta hernaniarrak esperantza haundiz dijoaz domina mordoa ekartzeke. □

JASOTA BEZALA



Plaza Berrian Egunkariaren alde egindako festa bat.

BERRIA egunkariaren aldeko apustua

"Berria" egunkariaren proiektuak 47.000 eurotik gora jaso ditu dagoeneko Hernanin akziotan. Herri honek 220 akziodunekin eta 225 harpi-


detza berrikin erantzun dio otsailaren 20an itxi ziguten "Euskaldunon Egunkariaren ordezko dugun "Berria" kanean jartzeko erronkari.

Egun triste haien aztarnak ez ditugu ahaztu. Orduan atxi-

lotutako hiru lagun preso dituzte oraindik, eta jakin berri dugu Epaitegi Nazionalak beste sei hilabetez "Egunkariak" itxita jarraitzeko agindua eman duela, "Gara"ren aurkako ekimenak abian jartzearekin batera.

Baina zurrubilo guztiaren erdian, herritarren aldetik jaso dugun erantzuna ikusita, etorkizuna ilusioz eta esperantza berri batekin begiratzeko aukera egin dugu. Horregatik orrialde honetatik gure esker ona azaldu nahi diegu proiektu berriari elkarlanean eta eskuzabaltasunez babesa eman dioten hernaniar guztiei, eta, bereziki, azkiziondun eta harpidedun guztiei.

Maite Telletxea
Hernaniko Egunkariaren Aldeko Batzordearen izenean



Hamaiketakoak egiteaz gain jolasean ibili ziren atzo Udaletxeen.

Saharako umeei harrera egin zieten atzo Udaletxeen

UDARA pasa Hernanin dauzen Saharako umeei harrera egin zieten atzo Udaletxeen. Txema Mercado IUKO zinegotziarekin egon ziren Shaya Hdaya, Said Daih, Hmatou

Mahum, Hendu Jalil, Ghleyilha Moh-Lamin, Mohamed Zeindin eta Mansur Leshen. Udalak opari bana eman zien eta hamaiketakoak egin zuten Pleno aretoan. □

ASTIGARRAGA

Santio festen iragarpen kontzertua gaur da Foru Plazan

ASTIGARRAGAKO festak datorren asteazkenean dira eta gaur egindo dute Preludio kontzertua. Gaueko 22:00etan

hasita Astigarragako eta beste hainbat herriko musikari, dantzari, bertsolari eta abar ariko dira, Foru Plazan. □



Kike Amunarriz imintzio betean, denak begira dituela.

Kike Amunarrizek irriparrez eduki zituen AEKKo ikasleak

KIKE Amunarriz txiste kontalaria eta umorista tolosarra izan zen atzo Hernaniko AEKn,

ahozkotasunari buruzko ikastaroan. Nahikoa parre egin zuten guztiekin. □

IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai zentroan. 3 gelu dauzka eta berritua dago. Deitu: 943 330 927
Bi neska behar ditugu Hernaniko taberna batean sukaldetza eta zerbitzari lanak egiteko. 25 urtetik gorakoak eta esperientziarekin. Deitu: 943 55 26 94 (Nekane 10:00-15:00 eta 17:30-23:00)

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Etxebeste Elkano 2 943 552087
- Gauetan: Oa Usurbil. Poligono 1, 1 943 376076



Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURRERA

ERREMONTZE JAIALDIA:

1. partidua: Juaristi - Olazar / Uterga - Lander
2. partidua: Ezkurra - Urko / Zeberio II - Iriarte
3. partidua: Elizalde - A.Lekunberri / Iribarren - Aizpuru
4. partidua: Zeberio I-Etxeberria II / Matxin III-Aizpurua II